

ASTEASUKO UDALA ETA -TOLOMENDI- TOLOSALDEAKO LANDA GARAPEN ELKARTEAREN ARTEKO LANKIDETZA HITZARMENA, LANEAN TOLOSALDEAN BGD ETA/EDO DSBE JASOTZEN DUTEN IRAUPEN LUZEKO LANGABETUAK GIZARTERATZEKO ETA LANERATZEKO LAGUNTZA INTEGRALA EMATEKO IBILBIDEEN TOKIKO PROIEKTU PILOTUAREN GARAPENARI BURUZKOA.

Tolosan, 2022ko abenduaren 26an

ELKARTU DIRA

Alde batetik, JOSEBA ALTUNA USANDIZAGA jauna, Tolosaldeako Landa Garapenerako Elkartearen -TOLOMENDI-lehendakaria, erakunde honen izenean eta ordezkartzan.

Bestaldetik, PILI LEGARRA jauna /andrea, ASTEASUKO udaleko alkatea, erakunde honen izenean eta ordezkartzan.

ESKU HARTZEN DUTE

Nork bere karguko eginkizunak betez eta hitzarmen hau egiteko gaitasun osoa elkarri aitortuz eta, horrenbestez,

ADIERAZTEN DUTE

LEHENA: Tolosaldea Garatzen SA elkarteak Tolosaldean diru-sarrerak bermatzeko errenta jasotzen duten iraupen luzeko langabetuak gizarteratzeko eta laneratzeko laguntza integraleko ibilbideen tokiko proiektu pilotu batean parte hartzeko gonbidapena jaso du, Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzuaren partetik.

Diru-laguntzaren xedea, toki-erakunde onuradunek aurkeztutako proiektu pilotuak finantzatzea da. Proiektu pilotu horiek uneoro garatu behar dira, GPIaren eta/edo DSBEaren onuradun diren iraupen luzeko langabetuen kolektiboa gizarteratzeko eta laneratzeko aukerak hobetzeko helburuarekin bat etorriz, laguntza integraleko ibilbideen eta enplegu- eta prestakuntza-ekimen mistoen bidez, parte-hartzaileek beren enplegarritasuna, autoestimua eta erre-afirmazio profesionala hobetzeko baliozko konpetentzia profesionalak eskura ditzaten.

Gonbidapen horri erantzunez, Tolosaldea Garatzen SA.k "LANEAN TOLOSALDEAN" proiektua aurkeztu du.

Proiektuak lau fase izango ditu:

1. Hasierako prestakuntza. 240 ordukoa. Tolosaldea Garatzenek hartuko du bere gain eta zuzenean eskainiko du. 1-2 hilabeteak.
2. Zerbitzu anitzeko alorrean formakuntza. 509 ordukoa. Tolosaldea Garatzenek hartuko du bere gain, horretarako Lanbideko formatzaileen erregistroko erakunde formatzaile batengana joz. 3-12 hilabeteak.
3. Orientazioa. Tolosaldea Garatzenek hartuko du bere gain eta zuzenean eskainiko du. 1-12 hilabeteak.
4. Kontratazioa. 10 hilabetekoa (lana %65 eta formazioa %35). Tolomendik hartuko du bere gain lanaren alorra eta Tolosaldea Garatzenek formazioari dagokiona. 3-12 hilabeteak.

BIGARRENA: Proiektua egikaritzeko, Tolosaldea Garatzen, S.A.-k eta TOLOMENDI-k Lankidetzak hitzarmena sinatu dute, eta ondorioz TOLOMENDI-k proiektua partzialki gauzatu du, kualifikazio-fasea egikaritzuz. Fase horretan 10 pertsona kontratatuko ditu, txandakako prestakuntza-kontratu baten bidez, hamar hilabeteko iraupenarekin.

Tolosaldea Garatzen SA eta TOLOMENDI eskualdeko udal guztien partaidetzaz osatuta daudenez, proiektuan parte hartzen duten pertsonen udalerririk horietan proiektuaren xedearekin bateragarriak diren lanak egitea erabaki da.

TOLOMENDI izango da egin beharreko prestazioak udalekin koordinatzeaz arduratuko den erakundea (zuzenean edo zeharka horretarako azpikontrataturako enpresa baten bidez), Tolomendik udalekin adostuko du zein lan egingo dituzten, horretarako beharrezko egutegi bat antolatuz. Udalek beharrezkoa den informazio eta material guztia emango diete langileei.

"LANEAN TOLOSALDEAN" proiektuaren baitan, parte-hartzaileek ikasi beharreko lanbidea eraikuntzaren sektorean kokatzen da, agerikoa baita enpresa pribatu eta administrazio publikoak sektore horretan kontratatu beharreko langileak behar dituztela.

Proiektuan parte hartzen duten pertsonen zeregin hauetan lan egin ahal izango dute:

- Zerbitzu anitzeko peoiak.
- Eraikuntzako langileak.
- Eraikinak eta beste egitura batzuk pintatzea.
- Iturgintza, oro har.
- Igeltserotza, oro har.
- Hiri-espazioak mantentzea.

Proiektuan parte hartzen duten pertsonen eskualdeko udalerrietan egingo dituzte eginkizun horiek.

HIRUGARRENA: Apirilaren 7ko Euskadiko Toki Erakundeei buruzko 2/2016 Legeak 17.1.25) artikuluan udalerriko eskumen propioen artean Tokiko ekonomia- eta gizarte-garapena, eta tokiko enplegu planak edo politikak jasotzen ditu.

Horren arabera, ASTEASUko udala, "LANEAN TOLOSALDEAN" proiektuaren xedearekin bat egiten du eta proiektuan parte hartzen duten pertsonen eginkizunak emateko prest agertzen da.

LAUGARRENA.- Adierazpen hauek guztiak aintzat hartuta, bildutako aldeek honako Lankidetzaren Hitzarmena sinatzea adostu dutela bertan txertatuz honako

KLAUSULAK

LEHENA.- Hitzarmenaren helburua.

Hitzarmenaren helburua "LANEAN TOLOSALDEAN" proiektuaren baitan, TOLOMENDIko txandakako prestakuntza kontratu bidez kontratatutako dituen langileak ASTEASUko udalean egin beharreko prestazioak zehaztea da.

BIGARRENA.- Hitzarmenaren iraupena.

Hitzarmen hau indarrean egongo da 2022ko abenduaren 12an hasi eta proiektu pilotua ixten den arte eta aldi berean, proiektu pilotuari dagozkion kostu eta ordain guztiak gauzatu diren artean. Hau da, hitzarmena indarrean egongo da Lanbiderekin proiektua bukatutzat ematen den arte.

HIRUGARRENA.- TOLOMENDI-ren betebeharrak.

Honako hitzarmenaren bidez TOLOMENDI-ren betebeharrak izango dira:

- a) Proiektuan parte hartuko duten txandakako prestakuntza-kontratu bidez, kontratatutako langileak jarriko ditu, ASTEASUko udalarentzat jarduteko. Udalei dagokion lanaren egutegia helaraziko dio (I. Eranskina)
- b) Lan taldeko pertsona tutore-koordinatzaile bat izendatuko du bere kargu, horretarako egokia den enpresa baten zerbitzuaz baliatuko da.
- c) TOLOMENDIren betebeharra izango da langileek lan hauek egin ahal izateko baldintza egokiak bermatzea, hala, EPlak, lan aseguruua (III. Eranskina), lan segurtasuneko baldintzak.
- d) TOLOMENDIko lan segurtasunari dagokion balorazio eta irizpideak txertatuko ditu bere ohiko lan segurtasun planean. Hitzarmenaren II. Eranskinean atxikitzen da segurtasun plana.

LAUGARRENA.– Udalaren betebeharrak

Honako hitzarmenaren bidez ASTEASUko udalaren betebeharrak izango dira:

- a) TOLOMENDI-k ekarritako langileak, hurrengo lanak egingo dituzte ASTEASUko udalean (egingo ahalko diren lan mota guztiak aldeztu aurretik zehaztuta egongo dira, baina honek ez du ziurtatzen lan guztiak burutuko direnik. Eguraldia eta duten denbora kontuan izan beharko dira). Aurreikusita ez dagoen lan bat egin nahiko balu udalak TOLOMENDIrekin adostu beharko da. Hauek dira zehaztutako lanak:
 - *Kaleko bankuak pintatu*
 - *Kaleko farolak garbitu*
 - *Bideren baten bazterrak garbitu (kunetak)*
- b) Arriskuko altura lanak (Lan-segurtasun irizpideak kontuan hartuta aplikatuko da), baso-lanak, zuhaitz mozketak, etab. ez dira inolaz ere egingo.
- c) Udalak, lan horiek egiteko informazio eta material guztia emango die langileei, horretarako, udaleko arduradun edo langile baten bidez lanen azalpena eta jarraipena egin beharko delarik. Udalak utzi beharreko material guztia aldeztu aurretik baldintza eta kopuru egokian daudela konprobatuko du eta behar den unerako prest izango ditu.
- d) Udalak aldagela egoki batzuk prest izan behar ditu langileek beraien gauzak utzi ditzaten eta lanean hasi aurretik eta ondoren, arropa aldatu dezaten.
- e) Udalak ez du inongo lan harremanik izango TOLOMENDI-k kontratatutako langile hauekin eta bere konpromezua, egin beharreko lanak zehaztea eta beharrezkoa den materiala eta informazioa ematea izango da.
- f) Udalak langile hauen lan segurtasuna bermatu beharko du, ahal duen neurrian.

BOSGARRENA: Proiektuaren finantzazioa, diru-laguntzaren baitan izango da. Zentzu honetan, TOLOMENDI-k ez du funts ekonomiko propioarik jarriko proiektua gauzatzeko.

ASTEASUko udala, lanak behar bezala egiteko beharrezkoak diren gastuen kargu egingo da, betiere, gastu orokor hauetarako dugun aurrekontua gainditzen bada. Hala nola, lanak egin ahal izateko beharrezkoa diren material, tresneria, etab.en erosketa edo alokairua, langileen garraioa lanlekura, Tolomendik izango dituen lanaren koordinazio gastu orokorrak (administrarritza eta kudeaketa, aseguruak, lan-prebentzioa, sortutako finantzaketa gastuak...).

Hitzarmen honek dirauen bitartean sortu litezken aurreikusi gabeko gastuak programa honetan parte hartzen duten eskualdeko udaletxeen gain joango dira.

SEIGARRENA: ASTEASUko udalaren eta Tolomendiren arteko hitzarmen honen harira edozein gai argitu edo eztabaidatu behar den kasuan, Tolomendi eta Tolosaldea Garatzenen arteko hitzarmenaren markoaren baitan sortutako Jarraipen Batzordean erabakiko da, berak izango duelarik azken hitza.

ZAZPIGARRENA: Hitzarmen hau izaera administratibokoa da eta, beraz, hura interpretatu eta garatzeko aplikatu beharreko araubide administratiboa bete beharko da.

Eta esandako guztiarekin ados daudelako, bi alderdiek izenpetu egiten dute, bi aletan, esandako egunean eta tokian.

TOLOMENDI LGE

ASTEASUKO UDALA

A handwritten signature in blue ink, appearing to be 'Jose Luis', written over a horizontal line.

Sinaduren laburpena / Resumen de firmas

Titulua / Título:

Hitzarmenak 2022-06

CSV/EKS:

SINAadc2cb34-e05a-400d-a673-c518e9778c1c